# I. ERANSKINA
# ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILOIA
# ANEXO I
# PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA

## 2016-17 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
## *Programación didáctica anual/de curso 2016-17*

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ikastetxea:** *centro:* | Uribekostabhi | **kodea:** *código:* | 015143 |
| **etapa:** *etapa:* | D.B.H. | **zikloa/maila:** *ciclo/nivel:* | dbh 2 |
| **arloa/irakasgaia:** *área / materia:* | Euskara eta Literatura | | |
| **osatutako arloak/irakasgaiak** *materias integradas/ áreas* | Hizkuntzak eta IKT | | |
| **diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak** *competencias disciplinares básicas asociadas* | Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia. Teknologiarako konpetentzia.<br>Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia. | | |
| **irakasleak:** *profesorado:* | Maria Viar, Nerea Mallona, Jorge Zamora, Jose Javier Aguirre | **ikasturtea:** *curso:* | 2016-17 |

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales*:
1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko gaitasuna.
2. Arduraz eta autonomiaz bizitzen ikasteko gaitasuna.
3. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
4. Elkarrekin bizitzen ikasteko gaitasuna.
5. Egiten eta ekiten ikasteko gaitasuna.

| **helburuak** *objetivos* | **ebaluazio-irizpideak** *criterios de evaluación* |
|---|---|
| 1. *- Eleberri bat irakurtzean, hipotesiak formulatuz eta modu aktiboan inplikatuz, helburuaren araberako informazioa inferitu, eta testuaren esanahia norberaren esperientziaren testuingurura ekarri.<br>*- Gai jakin bati lotutako enuntziatuetan eta proposatutako berridazketetan, igorleak esandakoaren inguruan adierazten duen jarrera islatzeko | 1 -Ea bakarka irakurritako literatura-obrei buruzko iritzia azaltzen duen (ahoz zein idatziz), eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen dituen; gainera,literatura kultura, sentimenduak eta pentsamenduak transmitizteko baliabidetzat hartzen duen.<br>-Ea, aurrez emandako argibide batzuetan oinarrituz, gai den jatorrizko testutik hartutako ideiak edo informazioak laburpenean sartzeko, modu kohesionatuan eta zuzenean. |

| | |
|---|---|
| hizkuntza-‑baliabideak zuzen eta egoki aplikatu. | - Ea errespetatzen dituen gramatika-, ortografia- eta tipografia-arauak. |
| 2. * -Diskurtso partekatua osatzea helburu duen ahozko interakzio-egoeran, hori bideratzen duten konbentzioak erabili, eta besteek esandakoa bere diskurtsoan integratu hizkuntza-‑baliabide egokiak erabiliz. | 2 -Ea literatura-lanarekin lotutako elkarrizketa batean, aktiboki hartzen duen parte eta bere esperientziak eta ikuspegia adierazten duen. |
| 3. -Informazio soila adierazten duten enuntziatuak balorazio-enuntziatu bilakatu, zentzu positiboa zein negatiboa adierazten duten adjektibo baloratiboak modu kontzientean erabiliz. | 3 -Ea hautatzen duen helburua lortzeko garrantzitsua den informazioa. |
| *-Ohar kritikoen ereduak aztertuz haien atalak identifikatu, eta egitura horren arabera antolatu bai jasotako informazioa eta bai norberak sortutakoa. | -Ea erabiltzen dituen oinarrizko kohesio-elementuak, ideiak eta testu zatiak lotzeko. |
| *-Ikasitakoa bilduz, ohar kritikoa berrikusteko elkarlanean sortutako kontrol-‑zerrenda sortzean modu aktiboan parte hartu, eta adostutako urratsak nork bere ohar kritikoa berrikustean aplikatu. | -Ea parte-hartze aktiboa duen ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten. |
| 4. -Ikus-entzunezko testuak aztertuta, kode ugariren bidez transmititzen duten mezua interpretatu eta interpretazioaren emaitza adierazi emandako ereduaren arabera. | 4--Ea informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen duen, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak. |
| *-Ikus-entzunezko mezuak modu kritikoan aztertuz eta erreproduzitzen dituzten giza baloreak eta estereotipoak inferitu eta haien egokitasuna zein desegokitasuna baloratu emandako ereduaren arabera. | -Ea modu naturalean esku hartzen duen, eta bere ikuspegia azaltzen duen. |
| 5.*-Emandako euskarrietatik informazioa eskuratu eta eztabaidagai jakin baten inguruko iritzia adierazi eta justifikatu, argudio mota desberdinak baliatuz. | 5--Ea parte hartzen duen taldean egiten diren elkarrizketetan; elkarrizketa horiek, hain zuzen, adierazpenak egitea, ideiak kontrastatzea eta erabakiak hartzea dute helburu. |
| *-Eztabaidagai baten gainean besteek duten iritzia errefusatzeko eta norberarena justifikatzeko argudiatu, besteen argudioak nork bere diskurtsoan txertatuz. | -Ea aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten duen.<br>-Ea adierazpen baztertzaileak ez dituen erabiltzen. |
| 6. *-Norberak sortutako testuak eta besteenak berrikusi eta hobetu, berdinen arteko berrikusketarako urratsak aplikatuz eta diskurtsoaren formari dagokionez landutako ezagutzak baliatuz. | 6- -Ea, aurrez emandako argibide batzuetan oinarrituz, gai den jatorrizko testutik hartutako ideiak edo informazioak laburpenean sartzeko, modu kohesionatuan eta zuzenean. |
| -Elkarreraginean egin beharreko zereginetan modu aktibo eta efikazean parte hartu. | -Ea galdera eta azalpen egokiak ematen dituen gainerakoek esku hartzen dutenean. |
| 7. *-Erreportajeen ereduak aztertuz haien komunikazio-asmoa inferitu eta egituraren | |

| | |
|---|---|
| osagaiak bereizi eta ezagutza hori norberaren testuaren planifikazioan erabili.<br>*-Emandako enuntziatuetan izen-sintagmak eta haien osagaiak identifikatu, eta, osagaiak deklinatuz, esaldi zuzenak idatzi.<br><br>8. *-Informazioa eskuratzea helburu duen aurrez planifikatutako elkarrizketan, aurrez aurreko egoeraren ezaugarrien arabera galdera egokiak egin eta interakziorako estrategiak aplikatu.<br><br>9. *-Testu bateko ideien arteko erlazio semantikoa inferitu, eta erlazio horiek adierazteko hizkuntza-baliabideak zein progresio tematikoa bideratzen dutenak norberaren ekoizpenean erabili.<br>-Besteen hitzak norberaren diskurtsoan txertatzeko landutako hizkuntza-baliabideak aplikatu. | 7--Ea, aurrez emandako argibide batzuetan oinarrituz, gai den jatorrizko testutik hartutako ideiak edo informazioak laburpenean sartzeko, modu kohesionatuan eta zuzenean.<br>-Ea identifikatzen dituen testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak (ikasturte honetan landuak), era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta.<br><br>8- -Ea galdera eta azalpen egokiak ematen dituen gainerakoek esku hartzen dutenean.<br><br>9--Ea erabiltzen dituen ikasturtean zehar hizkuntza batean ikasitako zenbait ezagutza -testuinguruari, testuari, perpausari eta hitzari dagozkionak-, gainerako hizkuntzetako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.<br>-Ea parte-hartze aktiboa duen berak egindako zein besteek egindako ekoizpenak berrikusten eta hobetzen, eta, horrez gainera, besteek egindako ekarpenak balioesten dituen, |

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta…].

***SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS*** *[organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje ].*

| 1. ebaluazioa | 2. ebaluazioa | 3. ebaluazioa |
|---|---|---|
| 1. unitatea: Ezekiel: hitz egiteko irakurri.<br>2. unitatea: Tertulia: idazteko hitz egin.<br>3. unitatea: Kritika: irakurtzeko idatzi. | 4. unitatea: Egixe da, egixe da.<br>5. unitatea: Munduari begiratzeko moduak.<br>6. unitatea: Begiratu, ikusi eta berrikusi. | 7. unitatea: Zertaz jardun?<br>8. unitatea: Zer diostazu?<br>9. unitatea: Nola adierazi? |

Arazo-egoera : Normalizazio Batzordeak antolatuko dituen proiektu guztietan hartuko dugu parte: Euskararen Egunaren garaian Zergatik ez dugun euskaraz egiten izenburua duen proiektua garatuko dugu, besteak beste.

HTB Batzordeak proposatuko dituen zereginetan ere murgilduko gara.

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna… ikuspegi inklusibo batetik].

***METODOLOGÍA*** *[organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado desde una perspectiva inclusiva].*

| |
|---|
| Metodologia inklusiboa eta anitza erabiliko dugu.<br>Gaiak malgutasunez eta era anitzean aurkeztuko ditugu.<br>Hizkuntzaren oinarrizko arloak -irakurmena, mintzamena, entzumena eta idazmena- landuko ditugu.<br>Ikasleak autonomia lor dezan, azalpenekin batera ahozko zein idatzizko ariketak egingo ditugu.<br>Edukiak indartzeko eta akatsak zuzentzeko, noizbait etxeko lanak aginduko ditugu.<br>Ikasleen parte-hartze aktiboak ezinbestekoa izan behar du.<br>Classroom eta Google Drive ere erabiliko dira lanak eta proiektuak bideratzeko.<br>Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena eta entzumena lantzeko beren-beregiko atazak landuko ditugu. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan-saio batzuk antolatuko ditugu, eta bertan landutakoa 3. ebaluazioan zehar ikasgeletan gauzatuko dugu. |

<table>
<tr><td>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoa, portfolioa, kontratu didaktikoa…]<br>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico ].</td><td>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]<br>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</td></tr>
<tr><td>Idatzizko probak (gramatika/idazmena)<br>Entzumena lantzeko probak<br>Ahozko adierazpenak<br>Proiektuak<br>Banakako zein binakako eta taldeko lanak<br>Koaderno digitala zein paperezkoa<br>Partaidetza<br>Jarrera (orokorra eta Euskararekikoa)</td><td>1. Notarako probak: %60<br>2. Irakurketak eta Proiektuak %20<br>3. Jarrera orokorra, Euskararekikoa, Klaseko lana, etxeko lana, teknologia erabilera egokia: %20</td></tr>
<tr><td colspan="2">EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema...].<br>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación ].</td></tr>
<tr><td colspan="2">ERREKUPERAZIOAK:</td></tr>
</table>

Etengabeko ebaluazio sistema erabiltzen dugunez gero, ikasleek ebaluazio bat aprobatzen dutenean, aurreko guztia gainditutzat joko dugu.

Ikasleren batek aurreko ikasturteetako Euskara ikasgaia gainditu gabe izango balu, ikasturtean zehar ebaluazio bat gaindituz gero ikasgaia gaindituko luke.

Bestela, urtarrilean aparteko azterketa egiteko aukera izango dute, gainditu gabe duten ikasgai hau gainditzeko. Horretarako, agindutako errefortzurako ariketak egin beharko ditu. Aurreko ikasturtekoa gainditzeko % 40ko balioa izango du lanak.

OHARRAK / ***OBSERVACIONES***

* Ezagutza minimoak asteriskoaren bidez zehazturik daude.

Mintegi burua: Mari Luz Arranz
Data: 2016/10/25